

Ramon Saizarbitoria

BIHOTZ BI

GERRAKO KRONIKAK



erein

Nire emazteak Flora zuen izena. Hura hiltzeko erabaki serioa, kamisoiaren behealdea gerrira jaso, neure gainean hankalatraba jarri eta, atsegin izateko intentzio nabarmenegiaz, titiburuak atximurkatu zizkidan egunean hartu nuen.

Ordurako banekien engainatu ninduela, noski, baina ez dut uste hiltzeko erabakia hartzera bultzatu ninduen zio zuzena hori izan zenik. Beharbada, oraindik ere neure burua arrazionalistatzat jotzen dudanez, kosta egiten zaidalako onartzea Floraren lasaitu sexuala bezalako gauza arrunt eta naturalak hain erabaki gehiegizko eta erabatekoa hartzera eraman nintzakeenik.

Samuelek, txantxetan, entziklopedista naizela esan ohi zidan, eta ez zuen esaten, egia den arren, entziklopedi saltzailea naizelako bakarrik, edo hitz askoren definizioak buruz ikasi ditudalako, baizik eta Jakitea eta Arrazoia gizakiaren ezaugarriarik nobleenak direla uste dudalako; sentimenduen eta instintuen gainetik, gure bidea gidatu eta argitu behar luketenak.

Beharbada hain arrazionalista izan ordez, Floraren engainua atzeman nuenean, Beltranek bezala atea erakutsi eta, hitz egiteko betarik eman gabe, "laztana",

esan banio, “laztana, gurea amaitu da, doilortasunak ez du lekurik hemen”, ez nukeen leihotik bota beharrik izango, baina, ziur asko, irtenbide ez-arrazoizko eta teatralak saihets nitzakeelakoan hasi nintzen neure burua konbentzitu nahian larru jotzea gauza naturala dela, gorputzaren eskakizun hutsa. “Il faut bien que le corps exulte” dio esaera frantsesak, gorputzak alaitasuna behar duela, alegia, eta oso arrazionalistak dira frantziarrak, izara arteko gaietan adituak gainera. Baina jakina, ni ez izaki frantsesa.

Madrildarra da Beltran. Ez dakit zergatik aipatzen dudan, bizitza osoan behin baino ez baitut ikusi, eta gero, epaileak erakutsi zidan argazkian, hilik jada. Hanbren nolatan azaldu zen ere ez dakit, Hanbre sagardotegi ilun eta pobrea baita, Pleyel markako piano eder bat duen arren; nik neuk ere, Samuel eta besteak bertan biltzen direlako ez balitz, ezagutuko ez nukeena. Eta Beltran ilea distiratsua eta izurgabea, baina kokotean kiribilotan harrotua, atzera orraztua eraman ohi duten horietakoa zen. Norbaitek esan zuen familia aristokraziakoa zuela, oraindik ere hemengo aldean baserri piloa dutenetakoa. Nikolasen esanetan, jende horrek, maizterren errentak jadanik bizitzeko adina ematen ez dutelako, mendeku hartzeko, baserrietan hobekuntza lanak egitea galarazten omen die. Beltranez esan zuen, berak ez zekiela baserriak non zeuden ere, eta ez zen zaila tipo hari gauzak non zeuden ez zekiela sinestea.

Baserriak bezala, bertakoa omen da engainatu zuen emaztea ere, eta, maitemindurik jarraitzen zuenez,

bidaia egiteko modua aurkitzen zuen guztietan etortzen zen, harengandik gertuago sentitzeko. Hark, berriez, bioletaz lurrinduriko paperetan idatzitako gutunak igortzen zizkion, barkazio eske eta berarekin bizitzea desio zuela esateko. Beltranek zioen, ordea, ez zegoela infidelotasuna barkatzerik. Engainatzen zuela jakinda-koan, atea erakutsi eta, hitz egiteko betarik eman gabe, esan omen zion: “laztana, ez zaitut gehiago ikusi nahi, zoaz, doilortasunak ez du lekurik hemen”.

Gustatuko zitzaidan harekin gehiago hitz egin ahal izatea, gure artean ezohiko gaiak zirelako haiek, baina Nikolasek esandakoaren ondoren –jende hark maizterrei egiten ziena eta hori, alegia–, banekien gainerakoek ez zutela nire begiramena ulertuko. Hala ere, esan nion beraren portaera ergel samarra iruditzen zitzaidala, eta barkatu beharko liokeela emazteari zeren, azken batean, ea larru jotzea zer zen, behar fisiologikoa ez bada; jatea edo edatea bezala, gorputzaren eskakizun hutsa. “Il faut bien que le corps exulte” esan nion, eta frantsesena, izara arteko gaiez asko dakitela, alegia. Berak, ordea, hitz egiten nion bitartean buruaz baietz egiten zidan arren, esaten diezun guztiari arrazoia ematen dioten mozkor atsegin horietakoa baitzen gizajoa, besaburuak altxatu eta pena izugarria erakusten zuen aurpegiaz, ezina zitzaiola erantzuten zidan, emazteak engainatu egin zuelako, eta nik ezin uler nezakeela. Ez dakit zergatik pentsatzen zuen hori, aristokrata ez naizelako edo artean Florak adarrik ipini ez zidalako.

Florak adarrez hornitu ninduenean aspaldi beteak zituen hogeitaz urte. “Abandonaturik eduki nauzu” esan